

PAT azterketa dut bi aste barru, pertsonen azterketa tekniko, eta hori prestatzen ari naiz buru-belarri, gorputz eta bihotz. Dena baitut jokoan, nire izaera bera eta agian, baita oroimena ere. Azken bi urteotan aise gainditu dut, beraz, "gaipat" gaitasun agiria eskuratu dut, nire alde. Gaur, baina, botoi bat jostea kostatzen ari zaidala ohartzen ari naiz eta urduriantzean jartzen hasi naiz, zergatik ez ote nintzen esku trebakuntzan lehenago abiatu. Ez dut nire izaera aldatzerik nahi, ez dut konponketarik nahi, horrela hil nahiko nuke. Zoritxarrez, ez dago nire esku, estatuaren esku baizik. Amarekin oroitu naiz.

Memoria nahiko argi dabilkit, bilobarekin egin dut irakurketa ulermen testa eta erraz gaineratu dut eskatutako maila. Lurrean zilipurdi pare bat eman dezaket eta zutik oin bakarrean orekari eusten ere moldatzen naiz: gorputz arintasuna gaindituko dut. Erosketetarako matematikan nahiz bankuko eginkizunetakoan txukun nabil: buruketa atalak ez dit arazorik emango. Eguneko albisteak entzun nahiz egunkariak irakurrita, gaur bizilagunarekin elkarbanatzean egunean nagoela berretsi dut, beraz, honetan ere ez dut huts egingo. Mugikorra badakit erabiltzen, nire burua aurkezteko gai naiz, sukaldean burujabea izaten diraut: behar dudana sukaldatzeko ez dut arazorik. Azterketa egunean kuia krema nahiz arraina pil-pil saltsan egitekoa naiz, hemen ez dut erreparorik izango. Halere, botoia josten moldatu behar dut, berokiko botoiak lotzen adina. Erreumak mina eragiten dit hatzetan eta malgutasuna zein zehaztasuna akituta ditut: iaioitasuna galdu dut hatzetan eta honek bakarrik eraman nazake hondora. Lortu behar dut, aurten ere bai, ez nuke ama bezala bukatu nahi, are gutxiago Oihan eta Mirari bezala.

Afixa dut eskutan eta afixak irakur ditzaket kalean ere: "egizu PAT azterketa, zure buruak dirdaitso jarrai dezan". Agure/atso alai, hortz zuri lerrokatuekin eta asebeteak erakusten dizkigute. Zahartzaro okitua ez da existitzen mundu honetan: hori konponketa

tailerrekin moldatu genuen aspaldiko arazoa da. Bizi dena, bere buruaren jabe da eta bere kabuz bizitzeko gai. Iragarkia benetan ederra da, edonor liluratu eta erakartzeko modukoa.

Laurogei urtetik gorakoentzat ezinbesteko azterketa izan zen iaz arte, nik badituz laurogeita sei. Aurten adina hirurogeita hamabostera jaitsi dute eta buru atzeratasuna dutenentzat ere nahitaezkoa bihurtu da. Gizarte zaharkitu honetan lana emango ez duten gizabanakoak behar ditugu eta ezin dugu zaintza gazteagoen edo oraindik ere gai direnen esku utzi; zaintza estatuak bermatzen digu.

Giza-jagoleak datozkigu etxera bila PAT egunean, kotxe dotoretan eta te kikara eskutan, azterketa lekura eramatearren: intsumisoak agertzen hasi zirenetik ez dago “azterketa eguna oharkabean pasa zitzaidan” esan eta egiteke uzten duen inor. Ez zaio inori ez egiten uzten harik eta ez bada intsumiso aitortzen eta intsumisoek, osasunez ondo ala gaizki egon, haien etxean giltzaperatzen dituzte, hil artean. Lagun eta ezagun kottauen menpeko gelditzen dira erosketetarako eta jakietarako intsumisoak eta balkoiak arrosaz margotzen dizkie estatuak denek jakin dezagun hor barruan ez-hilerrian lurperatuko duten gizagaixo intsumisoa dagoela. Espetxean sartzea baino merkeagoa da etxeperatzea estatuarentzat. “Zaharrak dira eta ez dute aldatzeko mailutasunik, horregatik ezin ditzakegu espetxeratze eta birgizarteratze programetan sartu”. Hilabetean behin estatuko deia jasotzen dute errukarri hauek, ea intsumiso jarraitu nahi duten ala PAT azterketa egin nahiko luketen galdetuz limurtze aldera. Gainontzean, ahanztura. Bizirik hiltzen uzten dituzte.

Denek natural ikusten dugu intsumisoei ematen zaien jokabidea, haien hautua egin duten pertsonak direlako. PAT azterketa egin eta gaingidituko luke gehienak baina haien seta aldatu gabe iraun nahiago dute eta “balkoi-arrosa iraultza” goraiatu. Kontsignak zintzilikatzen dituzte, tamalez, gutxitan egiten dugu gora buruarekin, burua etxe artean

altzatzea debekatua dugulako, isuna ordainarazteko zigorpean. Arau bat da: “kalean ezin da balkoietara eta etxe teilatuetera begiratu”, baina berez, kontsignak ezkutatzeko era da.

Gogoan dut azterketa hau existitzen ez zen garaia, amona etxean hil zitzaigunekoa, zahartzaroak jota. Lausoa da halere oroitzapena eta hura izanda ere, ezin dezaket inorekin elkarbanatu, aurreko bizitzako ezer kontatu ezkerro etxean uzten baikaituzte giltzapetuta hiru hilabetez, zelatariak atean. Burua nahasten zaio askori etxepeko hiru hilabeteotan: balkoitik behera eroritakoak ugari izaten ditugu. Ezin dezakegu beraien buruaz beste egin dutenik esan, hau adieraztea bera zigortua baitago. Denak zoriontsu gara eta gure gizartean ez dago suizidiorik, ez aurreko gizarte ereduaren nostalgiarik: inoiz ez gara orain bezain osasuntsu eta luze bizitu.

Bai bakoitik\_eroritakoak, bai PAT intsumisoak ez-hilerrian lurperatzen dituzte, izenik gabe, sendiaren arrastorik gabe, nor izan diren aztarnarik utzi gabe. Neurri batean zentzua du, ez dute gizartean integratu nahi izan. Ez dira ohartu estatuak bermatzen duela osasunaren zaintza eta zoriona ere. Konbikzio simple honetatik ihes egin nahi dute, ez baitira askeak, haien grinaren eta setaren menpe daude. Orduan, ez badute gizartean integratu nahi, zergatik gogoratu behar dugu haien bizitza hilarrian idatziz? Zentzugabea da erabat.

Bestalde, azkenaldian etxe barruan kirol diziplina mantendu eta osasuntsu ateratzen ari dira geroz eta gizarte-orekaren aurkari zein anarkista gehiago eta hau kontu beldurgarria da. Etxeperatze zigorraren hiru hilabeteak sei hilabetera luzatu ala ez eztabaidatzen ari dira legebiltzarrean agintariak, gizarte oreka baita dugun bakarra. Naturari ezin zaio bere bidea egiten utzi: gure bizitza gure esku dago eta PATan maila ematen ez dugunean, eman dugula eman beharrekoa eta gure azken egunaren data ematen digute.

Botoiak irrist egin dit behatzetatik, malko bat atera zait begi-zulotik. Nire ama gogoratu dut: berak ez zuen bere zapatetako lokarriak lotzen asmatu PAT azterketan laurogeita lau urte zituenean eta PATezgai agiria jaso zuen. Burmuin ebakuntza egitera deitu zuten azterketa biharamunean. “Hori onartu baino, nahiago nik amaitu” esan eta arratsalde horretan ez zen etxera itzuli, trenaren aurrean bota omen zuen bere burua, agintariak esan zigutenagatik. Nik ez dut sekula sinistu, amak ezkutuan profesatzen zuen Jainko bakaarreko fedea duintasunezko gizakia zela eta bizitza dastatu egin behar zela sentimendua biziberritzen ziolako egunero.

Zer ote ziren elizak eta fedea. Txikitako ezkilak gogoratu nituen.

Amak ez zuen konponketarik nahi, ez zuen eraldaketarik nahi beretzat, bera ondo zegoela, baina zaharra zela besterik ez zioen eta zahartzaroa ez zela krimena.

Estatuaren traidore izendatu zuten eta ez ziguten lurperaketa sendi artean egiten utzi: ez-hilerrian lurperatu zuten ez-hilerriko funtzionarioek, haren izena hilarrian ere jarri gabe. Guk ez genuen gorpurik ikusi ordea. Izengabeen hilerria deitzen zaie hilerri horiei, bere buruaz beste egin duten zaharrek eta balkoitik behera eroritakoek dute hor haien hilotza.

Amak Jainko errukior bati buruz hitz egiten zuen, bere altzoan hartuko zuena eta bizitza oro, gazteenetik zaharreneira duina zela ziotsana. Hiritik alde egitea lortu zuela sinisten dut nik, mendira eta bertan bera bezalako beste batzuekin topo egin zuela eta bere azken egunak lagunartean eta xahartzen eman zituela.

Nik, aldiz, garbi dut horrela behar duela. Gizakiok urte batzuetatik aurrera ez dugu ginena ematen, ez gara lehengoak eta konponketa bat edo beste behar izaten dugu. Hori argia da. Gutxiago sufritzen dugu honela eta hiltzeko garaia denean, hots, dagokigun eguna iristean, denak agurtu eta gaueko bederatzietan amaitzen da bizitza betiko. C'est la vie. Behintzat, ezagutzen dugun eran, erlijioetan sinisten duen jendeak beste bizitza bat

dagoela aldarrikatzen baitu. Horiek dira errebeldeenak, baita beraien bizitzaren burujabe izan nahi dutela diotenak, hots, gure gorputzak eta buruak erabakiko duela noiz hil eta ez datu hotz batzuek ematen duten egunak. Amak zioen bezala, baina ama ez zen errebeldea, arauak bete zalea zen.

Konponketa tailerretatik pasa dira nire bi lagun min azken bost urteotan, Oihan eta Mirari. Oihan hobetua, hamabost bat urte gaztetua, indartua eta malguagoa etorri zen gurera. Burua argitu zioten. Hura bai aldaketa ona eta gure pagotxa! Gu erruz poztu ginen harekin. Aldaketa horren handia izan zen, ordea, ezen gu zaharrak ikusi eta abandonatu egin baikintuen ebakuntzatik itzuli eta gutxira. Guretzako bere galera heriotzaren parekoa izan zen: konponketa tailerretik pasa eta aurretik zituen interesak aldatu zitzaizkiola ohartu eta arrotz sentitu zen gure artean. Gure ondotik egin zuen alde betiko. Estatuak laguna ostu zigun.

Bestea, Mirari, hura bai anabasa, ebakuntzara emakume bat joan eta beste bat itzuli zen, oinetatik bururaino ezberdina zena. Itxuraz, berdina, baina beste pertsona baten memoria jarri ziotela uste dugu guk, zera, tailerrean hanka sartzea egin zutela eta ez ziotela zegokion memoria jarri. Memoria ez dutela aldatzen esaten digute ofizialki, baina zurrumurru ugari dago senitarteko bat joan eta ezezagun bat itzuli dela diotenak, hots, memoria ez dela berdina eta beraz, pertsona ere ez. Mirari betiko galdu genuen lagun taldean konponketa tailerrean izateagatik.

Oihan eta Mirarik ez dute iritzi bera, oso pozik dirudite haien burmuin konponduan. Beno, ezin jakin, horrenbeste aldatu dira ezin dezakegula jakin jada Oihan eta Mirari direnik edukian. Oihan gazteagoko pertsona dela diogu denok, baina Mirari... Mirari ez da beste pertsona bat dela ohartu ere egin. Irribarre txoroa egin dut.

PAT burmuin-ebakuntzetan akatsak daude: burmuina atera, garbiketa egin eta berriz ere sartzen dute barrura. Hau teoria. Praktikan burmuin zerrenda etiketatu gabe

egoten dela ebakuntza gelan esan zidan aurreko bizitzako lagun batek, txikitakoak, eta horregatik daudela hanka sartzeak, atera, garbitu eta berriz ere kasko barruan sartu behar dutenean zer norena den ez dutelako jakiten.

PAT gaitzen ez badut, estatuak bereganatuko ditu nire gaineko eskubideak, zaintza eta hobekuntzarakoa alegia. Konponketa tailerrera bidal nazake egunean bertan eta orduantxe hasiko da datuak biltzen heriotza zein egunetarako izan litekeen egokiena programatze aldera, harik eta PAT ebakuntzak behar bezalako emaitzarik eman ezean. Dena dago antolatua eta antolaketa barruan seguru sentitzen naiz.

PAT gaitzen ezker, nire erabakien eta buruaren jabe izaten jarraituko dut nire laurogeita sei urte sorbaldan gainean eta bizitzak oraingo martxan jarraituko du, baina gero eta lagun gutxiagorekin. Ez badut gaitzen, bizitza ez da nire esku egongo, estatuak gidatuko nau eta zilegia eta logikoa da. Logikoa da gizarteak baliozko gizakiak izan ditzen eta bestela, tailerretan konponketa izan dezaten. Nik hori ulertzen dut eta egin beharrekoa deritzot.

“Konponketa tailerrik gabeko garaia barre algarez bete zegoen”, hori zioen amonak, berak bakarrik ezagutu zuenez tailerrik gabeko garaia. Nire haurtzaroan itsatsia gelditu zitzaidan barregura ozena entzun dezakedala iruditzen zait tarteka, etxeko poza. Barre egitea ez dago ondo ikusia orain, nahiz eta ez dagoen zigortua eta ikara ematen dit oroitzen izatea.

Botoia jostea lortu dut. Beste urtebete lasai izango naiz. Heriotzak deitzen zait urtebete honetan, naturak bere bidea egin dezan nahiago dudala jakin badakidalako eta ez nukeelako amatxo bezala ihesean, nahiz Oihan eta Mirari bezala beste izaera batekin amaitu nahiko.